



**Arartekoaren 2013ko irailaren 12ko ebazpena, horren bidez amaiera ematen zaio gure esku-hartzeari, auzokide-talde batek Erandion Kukularra eta Altzaga arteko lotura eta aisialdi-eremua sortzeko udal-obren proiektuarekiko desadostasuna agertzean planteatu digun kexari dagokionez.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek (Kukularrako auzokidea) Arartekoarengana jo du, Kukularra eta Altzaga arteko lotura eta aisialdi-eremua sortzeko udal-obren egikaritzaren proiektuarekin ados ez dagoela adierazteko.

Bere erreklamazioan azaldu duenez, obren proiektua egiteko eta beraientzat izan dituen eraginak konpontzeko orduan auzokideek izan duten partaidetza-falta da kexaren arrazoietakoa bat.

Bestalde, azaldu duenez proiektu horrek hainbat alderdi eztabaidagarri ahalbidetzen zituen, besteak beste, jabe-erkidego batzuen ustez pribatuak ziren urbanizazio-espazio batzuen zaharberritzea edo tentsio altuko linea bat zati batez lurperatzea. Era berean, auzokideek Luis Landetxo kaleko eraikuntzei eragiten dien obren egikaritzarekin lotutako hainbat alderdi salatu dituzte. Kexan azaldu dutenez, obra horien ondorioz punturen batean igo egin behar da kalearen kota eta horrek zaildu egiten du etxebizitza eta aparkaleku batzuetarako sarbidea.

Bestetik, auzoaren gainetik doan tentsio altuko linea aldatzeko proposamena aipatzen dute. Trazaduraren zati bat lurperatzeko beharrezko ondorioz, bi euskarri berri jarri behar izan dira. Dorre berri horiek alboko eraikuntzetan eragina dute. Erreklamazioan adierazienez, kexagilea ez dago ados tentsio altuko linearen zati bat soilik lurperatzearekin. Beste aukera batzuk aztertu beharko lirakeela adierazi du, besteak beste Rontegiko zubiaren bidez desbideratzea.

2. Erreklamazio hau jasotzean, udal-zerbitzu teknikoekin harremanetan jarri ginen, tentsio altuko linea aldatzeko obrei hasiera emango zieten aurreikuspenak ezagutze aldera. Udal-zerbitzu teknikoek 2012ko abenduan azaldu zizkiguten bai obren egikaritzari buruzko aurreikuspenak, bai udal-jarduera hauen berri emateko asmoz auzokideekin izandako harremanak.

Era berean, Arartekoaren aholkulari bat kexa sustatu zuen pertsona-taldearekin batu zen eta egikaritzaren obrak bisitatu zituen.

3. Erreklamazio honi dagokion izapidea emateko asmoz, 2013ko urtarrilaren 15eko idazkiaren bidez Erandioko Udalari beharrezko informazioa eta dokumentazioa bidaltzeko eskatu genion, erreklamazio hau aztertze aldera.





Zehazki, Kukularra auzoan egindako obren proiektua onartzeko jarraitutako prozedurari, informazioa jendaurrean azaltzeko egindako tramiteari, eta, hala badagokio, auzokideengandik jasotako partaidetzari buruzko informazioa eskatu genion. Era berean, auzokideek obrak egin bitartean partzela horietan jasandako eraginengatik aurkeztu dituzten alegazioei buruz galdetu genion. Tentsio altuko linea auzotik pasatzean aldatzeko proiektuari dagokionez, lurperatzeko proiektuak hiri-lurretik pasatzean lineak lurperatzeko hirigintza-betebeharrak bete ote zituen eta trazadura honen gainean aztertutako aukera posibleak zeintzuk ziren ere galdetu genuen.

Gure informazio-eskaerari erantzunik eman ez zitzaionez, 2013ko otsailaren 14an eskaera berri bat bidali genuen. Informazioa bidaltzeko epea soberan igaro ondoren, gure eskaera errepikatu genuen, 2013ko maiatzaren 20eko ohartarazpenaren bidez.

4. Lehenengo eskaera egin genuenetik orain arte 7 hilabete baino gehiago igaro diren arren, Erandioko Udalak ez du bete gure eskaerari erantzuna emateko duen betebeharra.

Hori guztia dela eta, gure epaitze-parametroen arabera eta daukagun informazioari jarraiki, honako gogoetak jakinarazi nahi dizkizugu:

### Gogoetak

1. Erreklamazioaren helburua udal-obra batzuen proiektua eta Kukularra eta Alzaga arteko lotura eta aisialdi-eremua sortzeko egikaritzea aztertzea zen.

Auzoan bizi den pertsona-talde bat ez zen proiektuarekin ados agertu (egikaritze-fasean bertan), proiektuan azaltzen ziren espazio eta bide publikoak antolatzeko orduan ez zelako beren iritzia kontuan hartu. Adierazi zituzten alderdien artean sartzen ziren espaloi eta bideen diseinua eta tentsio altuko linea baten aldaketa, partzialki lurperatzeko, azken horrek euskarri berriak eraikitzea dakarrelarik.

Esan beharra dago adierazitako alderdietako baten harira errekurtsua jarri dela justizia-auzitegietan: urbanizazio-obrak eteteko eskaerari buruz ari gara, hain zuzen ere, jarduera horiek jabetza pribatua inbaditzen dutela uste baita. Hori horrela, kontuan hartu behar da erakunde honek ezin dituela baloratu ebazpen judizial baten zain dauden gaiak.

2. Hasteko, Erandioko Udalak erakunde honekin lankidetzan aritzeko erakutsi duen prestutasun-falta salatu behar dugu. Jarrera hori eskatzen zaizkion datu, agiri, txosten edo azalpenak lehentasunez eta premiaz aurkezteko legezko



betebeharraren kontrakoa da (Arartekoa sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 23. artikulua). Hau da, aurrekarietan azaldu ditugun gertakarien arabera, udalak urratu egin ditu erakunde honekiko dituen legezko betebeharrak, ez diolako erantzunik eman gure informazio-eta lankidetzaz- eskaerari.

3. Erakunde honek erreklamazio honi buruz duen informazio urria kontuan hartuta, esan bezala Erandioko Udalak lankidetzarik izan ez duelako, obra eztabaidagarriak onartu ditu udal horrek. Hala, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean Kukularra eta Alzaga arteko oinezko lotura eta aisialdi-eremua sortzeari buruzko 1. egikaritze-fasearen (aisialdi-eremua) proiektuko obren kontratazio-espeditzeari buruzko hainbat iragarki agertzen dira.

Ez daukagu zehaztasun gehiago obren proiektua izapidetzeko prozedura administratiboari buruz, ez eta herritarren partaidetza eta informazioa ahalbidetzeko gaitutako izapideei buruz ere.

Aurreikusitako udal-obra egiteko, administrazio-izapide bat behar da –halaxe ezartzen baitute Toki Araubidearen gaineko indarreko lege-xedapenen Testu Bategina (TATB) onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuko 88. artikulua eta hurrengoek-, udal-obra arruntaren proiektu gisa.

Udal-obra arruntek, urbanizazio-obren aldean, TATBko 90. artikuluan aurreikusitako betekizunak bete behar dituzte. Artikuluak honakoa dio: *“todo proyecto de obra deberá constar de planos, presupuesto de realización y memoria en que se incluya relación detallada y valoración aproximada de terrenos y construcciones que hayan de ocuparse y, en su caso, expropiarse, así como condiciones económicas y facultativas, las cuales podrán ser ampliadas con anterioridad al anuncio de la subasta o concurso”*.

Era berean, obra-kontrataziorako espediente izapidetu baino lehen, sektore publikoko kontratuen legediari jarraiki proiektua birplanteatu egin behar da, berau era normalean egikaritzeko beharrezko lursailak ote dauden justifikatu beharko delarik.

Edonola ere, obra-proiektu bat onartzean udal-plangintzako aurreikuspenetara egokitu beharra dago, zalantzarik gabe. Aurreikusitako betekizunen artean sartzen da udal-zerbitzu teknikoaren eskutik hirigintza-txostena egiteko betebeharra, hala zehatz-mehatz ezagutuko baitira egin nahi den proiektuaren irismena eta hirigintza-plangintzako arauetako egokitzapena.





Arau horien barruan, tentsio altuko linea lurperatzeko proiektuari eta hiri-lurretik pasatzean euskarri berriak eraikitzeari dagokienez, udal-plangintzako aurreikuspenak justifikatzeko aukera aipatu beharra dago.

4. Proiektua eta hiritarren partaidetza onartzeko prozedurari dagokionez, ez dakigu zein izapide jarraitu diren proiektuaren onarpenean zehar pertsona interesdunei berorren aurreikuspenak ikusteko aukera emateko. TATBen arabera proiektua jendaurrean jarri behar da behin betiko ebatzi baino lehen, baldin eta proiektu hori "probintziakoa" bada. Halaber, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 195 eta 196. artikuluek urbanizazio-proiektuetarako izapide hori arautzen dute.

Horren harira, informazioa jendaurrean azaltzeko administrazio-izapide honek berebiziko garrantzia duela azpimarratu beharra dago. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 86. artikuluaen arabera, posible da aukera hau dagokion prozedura administratiboan sartzea, *"prozeduraren izaera dela eta"*.

Gure ustez, herri lan arrunten proiektuak tramitatzean, behintzat izaera jakin bat duten obra-proiektuen edo urbanizazio-proiektu gisa kalifikatu ez diren tokiko horniduren egikaritzaren kasuan, jendaurreko informaziorako izapidea aurreikusi behar da, interesdunek alegazioak aurkez ditzaten.

Espainiako Konstituzioan -9 eta 103.1 artikulua- edo 30/1992 Legeko 3.5 artikuluan oinarritzen diren gardentasunaren eta partaidetzaren printzipioen ondorioz sartu behar da herritarren partaidetzarako eta informaziorako izapide hau, urbanizazio-proiektuetan gertatzen de bezala.

Hori dela eta, herritarrek administrazio ona izateko duten eskubidean sartzen diren printzipio horiei jarraiki, egokiagoa da herri lan arrunten proiektuak tramitatzen diren bitartean tokiko administrazioek jendaurreko izapidea sartzea. Izapide horri esker, auzokideek zuzeneko eta benetako partaidetza izan beharko lukete bideko trazadurari buruzko udal-erabakietan eta dauden espazio publikoen berrantolaketan.

5. Udal-obren harira sortutako desadostasunei dagokienez, esan beharra dago bide edo espazio publikoetan urbanizazioak hobetzeko edo ekipamendu eta hornidura berriak eraikitzeke egin diren obrek interes publiko nabarmena pizten dutela hiri-inguruaren kalitatea hobetzeko asmoz, horrek gero kolektibitatearen onura baitakar.

Hala eta guztiz, egia da obra horien ondorioz saihestezina dela herritarren ohiko bizitza eta trafikoa aldatzea (zaratak, eragozpenak, bide publikoen



mozketak...). Gainera, ondasunen titulartasunari, espazio publikoen diseinuari edo obra horiek sor dezaketen ingurumen-eraginari buruzko desadostasunak badaude, hiri-inguruak hobetzeko herri lanek gatazkak eragin ditzakete auzokideen artean, Kukularrako auzokideek azaldu duten kasuan bezala, eta agintari publikoek behar bezala kudeatu behar dituzte gatazka horiek.

Ahal den neurrian eragozpen horiek samurtze aldera, azpimarratu beharra dago herritarrek eskubidea dutela administrazioan dagoen informazioa eskuratzeko, aurreikusitako obren erabaki-prozedurari eta horien ondorengo egikaritzari buruz. Informazioa eskuratzeko eskubide horri esker, auzokideei aldeztetik jakinarazi beharko litzaizkieke herri lanen udal-aurreikuspenak, eta udal-proiektuaren justifikazio teknikoa, hirigintzakoa eta ingurumenekoa tarteko eskatzen den edozein informazio helarazi beharko litzaieke, besteak beste.

Era berean, erabaki publiko horiek hartzean herritarren partaidetzaren printzipioa azpimarratu behar dugu. Bi printzipio horiek hiritarrek administrazio ona eskuratzeko duten eskubidearen barruan sartzen dira.

Hiritarren partaidetza, alegazioak aurkezteko eta entzunaldirako aldien betearazpen hertsiaz harago, egin nahi den herri lanari buruz erabaki ona hartzen dela eta gutxieneko eragina bermatzen duen egikaritzaren egokia gauzatzen dela bermatzeko aukera da. Hori horrela, hiritarren partaidetzak aukera ematen du interes publikoa bateragarri bihurtzeko horrelako herri lan batean kontuan hartu behar diren gainerako interesekin.

Erabaki publikoak hartu baino lehen eskaini behar da benetako partaidetza ireki hori. Gatazken kasuan, kexa honetan azaldutakoa kasu, partaidetza-mekanismoei esker posible izan behar da auzokideek espazio publikoen diseinuari buruz dituzten planteamenduak eta obran egikaritzan eragozpenak eta eraginak murrizteko proposamenak entzutea. Edonola ere, azken erabakia udalean eskumena duen ordezkari-organoa da. Kontua ez da udalaren eskumen-eremua mugatzea, baizik eta era aktiboan entzutea eta aukera eta proposamen guztiak eztatzea, erabaki hobea lortzeko asmoz.

Kasu askotan, auzokideen proposamenei esker erabaki publikoa hobetu daiteke edo herri lana eztatzen den suerta daitekeenean onarpen handiagoa lor daiteke.

Era berean, herri lanak zuzentzen dituen organoaren eta obren egikaritzaren eragina jasango duten pertsonen artean elkarrizketa-moduren bat ezartzea administrazio-praktika egokia da gardentasunaren, informazioaren eta hiritarren partaidetzaren printzipioen harira. Partaidetza-mekanismo horren barruan, gutxienez aldeztetik ezagutarazi beharko zaie lan-programa alderdiei eta



pertsona ukituen proposamenak entzun beharko dira, obren kudeaketaren ondoriozko eragozpenak arintzen saiatzeko.

Erreklamazioaren helburua eta aurreko ataletan azaldutako gogoetak kontuan hartuta, honako ondorioak atera ditugu:

### Ondorioak

Erandioko Udalak Arartekoak eskatutako informazioa bidaltzeko orduan erakutsi duen lankidetzaz-falta salatu behar dugu. Horren ondorioz, izan ere, ezinezkoa izan zaigu Eusko Legebiltzarreko Ordezkaritza legez daukagun zeregina betetzea, administrazioaren legez kanpoko edo bidegabeko ekintzak zuzentzeari dagokionez.

Edozein kasutan, egindako gogoetak kontuan hartuta, aipatu beharra dago Erandioko Udalak herri lanen proiektuak egiteko orduan hiritarren partaidetzarako mekanismoak sustatu behar dituela. Mekanismo horiei esker, alde aurretik ezagutarazi beharko dira herri lanen udal-aurreikuspenak eta horien justifikazio teknikoa, hirigintzakoa eta ingurumenekoa, auzoan bizi direnek obren eta horien diseinuari buruzko iritzia eman dezaten eta jarrera desberdinen artean adostasunak lor daitezten.

Horretarako, izaera jakin bat duten udaleko herri lanen proiektuak tramitatzean informazioa jendurrean erakusteko aukera planteatzen dugu, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 86. artikuluan jasotako baldintzen arabera.

Halaber, obren egikaritzan zehar interesgarria izango litzateke elkarrizketarako mekanismo egonkorren bat ezartzea herri lanen zuzendaritza-organismoaren eta lanen egikaritza jasango duten pertsona ukituen artean.

